

Gazte eta ez hain gazteentzako bidaia

Mireia Galarza Bastida 2023ko abe. 12a, 11:00



Nerea Loiola bere azken liburuarekin (Erein argitaletxea)

Nerea Loiolak bere bigarren eskapu liburua aurkeztu berri du: *Azken denbora*. Sorta bereko lehenengo liburua baino konplexuagoa dela azaldu du Zarauzko bizilagunak.

Durangoko Azokaren atarian, hilaren 4an, aurkeztu zuen Nerea Loiola Debako (Gipuzkoa) idazle eta Zarauzko bizilagunak *Azken denbora*. Eskapu Liburuak bildumako bigarren lana da, eta Erein argitaletxearen eskutik kaleratu du. Iaz argitaratu zuen lehenengoa, *7G udalekuak*, eta horrek izandako arrakastari segida emateko dator bigarrena.

Uxue Razkin Erein argitaletxeko editoreak azaldutakoaren arabera, bigarren lana ere "Aukeratu zure abentura moldekoa da", baita *scapobook* bat ere. Hori horrela izanda, irakurleek abenturak aukeratzeaz gain, enigmak ebazti beharko dituzte aurrera egin ahal izateko. Bestalde, bigarren laneko jokoaren oinarrian dagoen istorioa zertxobait konplexuagoa ere badela gehitu zuen Razkinek: "Fantasiara gehiago jo du Loiolak liburu honekin, eta bertan, magia eta denbora makinak agertuko dira. Protagonista irakurlea izango bada ere, ondoan lagun hacker bat izango du, eta horrek ahalbidetuko ditu beste hainbat gauza istorioan zehar".

Jarraipena emateko asmoz

Loiolak berak jarraitu zuen liburuari buruzko azalpenak ematen, eta horretarako, bildumako lehen laneko aurkezpenean aipatutako hainbat ideia berreskuratuz zituen. Pasarte pertsonala kontatu zuen lehenik: "Gogoan dut 11 edo 12 urte nituela euskarako irakasleak aukera eman zigula nahi genuen liburua aukeratzeko. Aukeratu zure abentura bildumakoa zen, eta txundituta geratu nintzen. Duela pare bat urte seme zaharrenaren lagun bati gisa horretako liburua ikusi nion, baina gaztelaniaz idatzita zegoen. Esan zidan ez zegoela horrelako libururik euskaraz. Egon bazeuden, baina aspaldikoak ziren". Enkontru horren ondoren hasi zen Loiola 7G udalekuak liburua idazten, eta euskaraz gisa horretako liburuei jarraipena emateko asmotan jaio da orain *Azken denbora* ere.

Loiolaren hitzetan, lehenengoa ibilbide oso polita izaten ari da "gazte eta ez hain gazteen artean", dagoeneko 3.000 ale baino gehiago saldu baitituzte, eta horregatik, "irrikaz" dago bigarrenak izango duen harrera nolakoa izango den jakiteko. Razkinek emandako ideiak sakondu zituen ondoren Loiolak: "Uxuek aipatu du egitura konplexuagoa duela azken liburuak, eta hala da, bai. Bide gehiago ditu, eta luzeagoak dira horiek. Elkar gurutzatzen dira bide batzuk, eta leku berera eramaten dute irakurlea beste batzuek". Enigmei dagokionez, Loiolak aditzera eman zuen horiek ebazti ezin dituztenentzat pista txiki batzuk jarri dituztela orrialde horietan. Liburua idatzi bitartean ez zoratzeko, "eskemaz eskema" lan egin behar izan duela ere azaldu zuen aurkezpenean.

Bizilagunaren logela

Debarraren hitzetan, liburu sortako trama guztiak desberdinak izango dira. Bigarrenko liburuan, irakurleak jakingo du bizilagun heldu baten logela margotu behar duela bere lagunik onenarekin, eta bertan margotu behar duten zerbaitek emango dio hasiera abenturari. Loiolak aditzera eman zuen, erabaki onak hartuz gero, "gizateria eta euren burua salbatzeko aukera" izango dute. Protagonisten ezaugarriak ere erreparatu zien Zarauzko bizilagunak aurkezpenean. Horiek sortzea eta garatea «arretaz egin beharreko zeregina» izan dela azaldu zuen, bereziki pertsonaia nagusiarenak eta haren lagunik onenarenak. Bere nahia izan da edozein adinetako eta ezaugarritako irakurleak protagonistarekin identifikatzea. Horregatik, iskin egin die ezaugarri fisikoei, eta izaera azaltzeko ezaugarri oso beharrezkoak bakarrik eman ditu. Ildo beretik, protagonistaren lagunik onenarekin gauza bera egin duela esan zuen Loiolak joan den astean egindako aurkezpenean.

Bukatzeko, liburuan zehar azaltzen diren gaiak buruz ere mintzatu zen Loiola: laguntasuna, boterea, feminismoa, bigarren aukerak... Horiek guztiak abenturaz eta intrigaz betetako istorio batekin harilkatzen saiatu da idazlea, eta azken hausnarketa luzatuta amaitu zuen aurkezpena: "10 eta 14 urte bitartekoei dago zuzenduta liburua, baina helduei gonbidapena egiten diet, ea denbora amaitu aurretik abentura berri honetan bizirautea lortzen duten". Etorkizunari begira, Loiolak azaldu du ideiak badituela sorta bereko beste lan batzuk idazteko, baina lan konplexuak direla, eta, horrenbestez, patxadaz hartu behar dela prozesu hori ere.

Eleberri beltza ere bai

Aipatutako liburuaz gain, Loiolak badu berriki argitaratutako 'beste lan bat ere': Idatzi behar nitzizunak. Erroa argitaletxearekin plazaratu du lana, euskarazko B2 mailan. Idazle debarrak dio liburu horrek baduela misteriotik eta suspensetik. Bertan, Barbara Uribar da protagonista, Argentinara joan den aktore euskalduna. Familiaren iragan hurbileko sekretuak ezagutzeari ekingo dio, erakusketa bateko argazki baten haritik tiraka. Buenos Aires, Iruñea, Bilbo... hiriz hiriri joango da bilaketaz, traizioz, sekretuz eta istorioz jositako kontakizuna.

Loiolak joan den astean aurkeztu zuen aipatutako azken lana, abenduaren 8an, Durangoko Azokan, era berean. Euskara errazean sortako azken liburua da, eta Iñaki Landaren ilustrazioek laguntzen dute Zarauzko bizilagunak sortutako istorioa.

KULTURA ZARAUTZ

Erantzun



Ikusienak

'Street Scape' jarduera egingo dute hilaren 26an
Aritz Muñozabal
abe 12, 14:00 ZARAUTZ

Izaro Bereziartua: "Umetatik ibili naiz motorrean, eta orain zirkuituetara joaten gara taldean"
Haral
abe 12, 16:30 ZARAUTZ

Robotika espazialaren inguruko haurrentzako tailerrak antolatuko ditu udal elkarteak Gabonetan
Juan Luis Romatet
abe 11, 17:00 ZARAUTZ

Zarauz Abesbatzak larunbatean eskainiko du Gabonetako Kontzertu Solidarioa
GABONAK 2023
Aritz Muñozabal
abe 12, 09:15 ZARAUTZ

Garbiketa produktu naturalak egiten ikasteko ikastaroa antolatu du udalak
Mireia Galarza Bastida
abe 11, 16:45 ZARAUTZ

Ainhoa Murua elkarriketatu dute 'Geldiezinak' telesailean
Haral
abe 11 ZARAUTZ

UROLAKO KOMUNIKAZIO TALDEA KOOP. ELK.

Araba kalea 27 20800 Zarautz (Gipuzkoa)
Telefonoa: 943 89 00 17 | Helbide elektronikoa: zarautz@ukt.eus

Codesyntaxek garatua



HONI BURUZ | LEGE OHARRA | PUBLIZITATEA | ARAUAK | HARREMANETARAKO | RSS



Gertuko informazioa, euskaraz

AIARALDEA	AIKOR	AIURRI	ALEA	AMEZTI	ANBOTO	ANTXETA	ATARIA	BALEIKE	BARREN	BEGITU	DEUSTUALDEA PREST
ERLO TELEBISTA	ERLLO	EUSKALERRIA IRRATIA	GEURIA	GEURIA	GOIENA	GOIERRI TELEBISTA	GUAIXE	HIRUKA	KARKARA	KRONIKA	
MAILOPE	MAXIXATZEN	NOAUA	OIZMENDI TELEBISTA	PLAENTXIA	TXINTXARRI	TXINTXARRI	UIOLA	UZTARRIA	28 KANALA		

Gurean | Plazanbazan | Ttap

Tokikom publikizitatea